

IAGd=0 DUTEN IRAKASLE-IKERTZAILEEN IRAKASKUNTZA EMATEKO AUKERAK

	GRADUKO IRAKASKUNTZA	MASTERRETAKO IRAKASKUNTZA
DOKTORE-AURREKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • 2011ko Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren 14/2011 Legearen 21. Artikuluaren bitarteko kontratua duten DOKTORE-AURREKO IKERTZAILEAK (ZL-21.art) irakaskuntzan lagun dezakete, ordu-kopuru maximo jakin batekin (ohikoena 60 ordu/ikasturte). Besteak beste, hauek dira: MECeko doktore-aurreko formakuntzako ikertzaileak (IPFM), Eusko Jaurlaritzako IPFak (IPFG), 2014ko deialdiko UPV/EHUko IPFak (IPU4), eta abar. • Eskola ematen laguntzen dute. Honek esan nahi du: <ul style="list-style-type: none"> ○ EZIN dutela bere gain hartu irakaskuntzako ardura nagusia. ○ EZIN dutela irakasgaiaren akta sinatu. ○ Ordenagailu-praktiketan, laborategi-praktiketan, mintegietan, landa eta kirol praktiketan, tailer industrialetan eta praktika klinikoetan irakasle nagusiarekin PARALELOAN ere eman dezakete klasea (ikasgelan batera jardun). Hala bada, lana bi pertsoneri haien irakaskuntza-enkarguan aitortuko zaie. 	----
DOKTOREAK	<p>-14/2011 Legearen 22. Artikuluaren babesean kontratatutako ikertzaile DOKTOREEK (ZL-22.art) Graduetako eta Masterretako irakaskuntzan lagun dezakete ordu kopuru jakin batera arte (ohikoena, 80 ordu/IKASTURTE), eta 17/2022 Legearen 22. Artikuaren babesean kontratatutako ikertzaile doktoreek (ZL-22.art.) lagun dezakete (ohikoena, 100 ordu/IKASTURTE) .Ikertzaile horien artean honako hauek daude: Zientziaren Legeko Ikertzaile Doktoreak (IDLK), Eusko Jaurlaritzako Ikertzaile Doktoreak (INGV), Juan de la Cierva ikertzaileak (IJC), eta abar.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskola ematen laguntzen dute. Honek esan nahi du: <ul style="list-style-type: none"> ○ EZIN dutela bere gain hartu irakaskuntzako ardura nagusia. ○ EZIN dutela irakasgaiaren akta sinatu. ○ Irakaskuntza-enkargua ezin da bikoiztu, hau da, ikasgaiaren kredituak grabatutakoen artean banatzen dira. ○ GrALak eta MALak zuzendu ditzake, baina betiere beste irakasle batekin batera. Lan horiek guztiak Irakats-Enkargu gisa jasoko dira GAURren. 	
	<p>Escolak emateko aukera guztiak, mugarik gabe, dituzten irakasle bereziak: emerituak (EU/UIE), unibertsitate bisitariak (VU/UIB) eta UPV/EHUr atxikituriko ikerbasque bisitariak (VI/IKB).</p> <p>Kanpoko finantzaketa eta Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren 14/2011 Legearen 23. Bis artikuluaren bitarteko kontratua duten Ikertzaile Kontratatuak (PIC deitzen direnak) (iraupen mugatua edo mugagabea) edo Langileen Estatutuaren Legearen 15.1 artikuluaren bitarteko kontratatuek, bai doktoreek (INVU-INDD-IFED) bai ez-doktoreek (INVE-INDN-IFEN) ezin dute irakaskuntzan parte hartu. Beste gauza bat da haien kontratuak irakaskuntza emateko aukera duen beste kontratu batekin bateragarria izatea (adibidez, LIU partziala).</p>	